

NOS MUEVE  
**BILBAO**  
BAT EGINIK



**JUAN MARI ABURTO RIKE**  
BILBOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

HAUTESKUNDE PROGRAMA  
BILBO 2019-2023

EAJ-PNV.EUS



juanmariaburto.eus



**ejaj**  
**pnv**

## 7. GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

**Bilbo Europako abangoardian dago mugikortasun iraunkorrari dagokionez**, izan ere, barruko joan-etorrietan, ibilgailu partikularren erabilerari buruzko indizerik txikienetakoa du (% 12 ingurukoa) garraibideen banaketari buruzko azterketaren arabera. Gure hiria konpaktua eta trinkoa da, oinezkoen mugikortasunaren mesedetan, eta azken urteotan garatuko politikek mugikortasun iraunkorragoa erraztu dute, modu erabakigarrian erraztu ere. Politika horiei esker, oinezkoarekin nahiz ziklistarekin adeitsuagoak diren inguruneak sortu dira, ahalmen handiagoko garraio publikoaren sare azkarragoa eta eraginkorragoa garatu da (agintaldi honetan, Metroaren 3. Linea abiarazi izana nabarmendu behar da), ibilgailuaren protagonismoa murriztu da apartatzeko lekuak gutxitu ahala, TAO sistema hedatu da eta abiadura moteldu da hiri osoan (“Bilbo 30 km/h-ko Hiria”).

Hori guztiori Bilboko Udaleko Udaltzarak agintaldi honetan onartu duen **Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Planean** islatu da, **datozen urteotan hirimugikortasuna hobetzeko garatuko diren neurri guztiak bilduz**:

- Oinezkoen mugikortasunari dagokionez, auzoetako kaleak hobetzen jarraituko dugu, herritar guztientzat adeitsuagoak eta irisgarriagoak izan daitezten, eta horrekin batera, espaloiak handitu eta zenbait ardatz oinezko eremu bihurtuko ditugu, zenbait espaloi ere beheratuz irisgarritasuna hobetzeko, eta autoen eta oinezkoen arteko ikusgaitasuna hobetuko duten irteenguneak eraikiz, trafiko-istripuen arriskua murrizteko.

## 7. GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

- Bizikleta bidezko mugikortasunaren arloan, bidegorri eta bizikleta-bideen sarea garatzen jarraituko dugu eta kaleak bizikleten erabilerarako atseginagoak egingo ditugu ibilgailuen abiadura murriztuz eta galtzadetan bi garraiobideen arte bizikidetza erraztuz, hiriko bizikleta elektrikoaren sistema garatzen jarraitzeaz gain.
- Garraio publikoaren arloan, Garellano lurpeko Autobus Geltoki Intermodalaren berehalako irekiera nabarmendu behar dugu, hiriko eta lurralde osoko garraio-nodorik garrantzitsuenetakoa bihurtuko baita. Horrekin batera, hirian tranbia garatzen jarraituko da, Atxuritik Boluetarainoko Euskotrenen tartean tranbia ezarriz, eta Bilbobusen flota modernizatzen jarraituko da, kutsadura gutxiago eragiten duten unitate iraunkorragoen erosketaren bitartez.

Era berean, **irisgarritasuna da gure apustu nagusietako bat**. Azken 4 urteotan, lan handia egin dugu Bilboko auzoetako irisgarritasuna hobetzeko, irisgarritasunerako elementu berrien sorrera ekarri duten 20 jarduketaren baino gehiagoren bitartez. **Datozen 4 urteotarako helburua Auzoetarako Irisgarritasun Plana garatzea izango da bilbotarren bizi-kalitatea hobetzeko**, bereziki auzoen arteko oinezko lotura eta “Auzo-Bihotzetarako” nahiz garraio publikoaren nodoetarako sarbidea erraztuz.

## 7. GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

### 7.1- MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

#### HELBURUA

Garraio publikoari, oinezkoei eta ziklistei protagonismo handiagoa ematen dien **mugikortasun iraunkorraren eredu aurrera egiten jarraitzea**, kutsadurarik eragiten ez duten garraio bideen mesedetan.

#### NEURRIAK

1. Hiriko autobus zerbitzua (Bilbobus) berritzea, unitate elektriko eta hibrido berriak sartuz.
2. Birkarga-puntu publikoen kopurua handitzea ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatzeko.
3. Garellanoko Autobus Geltoki Intermodal berria abian jartzea.
4. Bizikletak maileguan uzteko Bilbaobizi udal zerbitzuan erabilgarri dauden bizikleta eta mailegu-puntuen kopurua handitzea.
5. Bidegorri-sarea handitzea.
6. Tranbiaren luzapena bultzatzea. Boluetaraino tartearen luzera eta Zorrotzaurreko Uharterekiko lotura zehaztea.
7. Taxi elektrikoa sustatzea.

### 7.2- IRISGARRITASUNA

#### HELBURUA

**Hiri-eredu inklusiboan aurrera egitea**, aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrak kontuan hartuz, eguneroko bizimodua eragozten duten oztopoak apurka-apurka kenduz eta pertsona horiek zerbitzu publikoetara duten irisgarritasuna hobetuz.

#### NEURRIAK

1. “Bilboko Auzoetako Irisgarritasun Plana” garatzea, honelako neurriak bultzatuz:
  - Altamiran, Zurbaranen, Otxarkoagan eta Mallona Bidarrien inguruan irisgarritasuna hobetzea.
  - Iggogailuak inplementatzen jarraitzea irisgarritasunaren arazoa konpontzeko beste aukerarik ez dagoen lekuetan edo mugikortasun-ardatz garrantzitsuetan.

## 7. GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

2. Egokitutako taxiak sustatzea eta garraio publikoa aniztasun funtzionala duten pertsonen beharretara moldatzea.
3. Auzokideen komunitateei irisgarritasunari buruzko arazoak konpontzen jarraitzea udal informazio zerbitzuaren bitartez, hobekuntza-lanetarako dirulaguntzak emanez eta esparru publikoaren lagapena eginez, atarietarako irisgarritasunaren arazoak konpontzeko beharrezkoa denean.
4. Espaloiak beheratzeko lanekin jarraitzea hiriko auzo guztietan.
5. Aniztasun funtzionala duten pertsonen elkarteekin lankidetzan jardutea auzoetarako nahiz hiriko ekipamendu eta zerbitzu publikoetarako irisgarritasuna zehaztu eta hobetzeko.

NOS MUEVE  
**BILBAO**  
BAT EGINIK